



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azkoitiko adineko pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzua arautzen duen ordenantzaren aurretiko kontsulta jasotzen duen txosten teknikoa.

1.- Ordenantzaren aurrekariak, testuingurua

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bermatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak eta zerbitzuak lortzea eskubide unibertsala eta subjektiboa dela, eta eskubide hori betetzea erreklamatu ahal izango dute, administrazio bidean eta jurisdikzio bidean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko Lege horrek ezartzen duen epea amaitzen denean (2016-12-25), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten pertsona guztiak.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Eguneko Arretako Zerbitzua sartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan, lehen mailako arretako zerbitzu gisa (22.1.7 artikulua), eta ezartzen du udalen gizarte zerbitzuei dagokiela zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, horrela dio:

— 5. artikuluan: Udalek eskumena izango dute Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 22. artikuluan zehaztutako lehen mailako arreta-zerbitzu guztiak emateko, telelaguntza zerbitzua izan ezik.

— 32. artikuluan laguntzen definizioa dator: pertsonen eskura jartzen diren baliabide formalak (zerbitzuak eta prestazioak) eta informalak (sare soziofamiliarak) haien funtzionamendu indibiduala, garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko, baita haien komunitate barruan partaidetza aktiboa, bizimodu independentea eta autonomia izan dezaten sustatzeko ere.

I eranskinean, 1.7 fitxan, adinekoei zuzendutako eguneko arretako zerbitzuak buruzkoan, zerbitzu motak definitzean, horrela agertzen da: zerbitzu hau aldi batean edo modu iraunkorrean erabiltzeko da eta mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoei (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) arreta ematen die.

2.- Konpondu nahi diren arazoak

Ordenantza beharrezkoa da, Azkoitiko Udalaren Eguneko Arreta Zerbitzua emateko prozedura-bideak ezartzeko aukera ematen baitu, eta zerbitzuaren errealitatera egokitzen den prozedura



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

arin baten bidez bermatzen da eraginkortasuna. Araua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoa den erregulazioa baitu.

Gainera, araua Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eskatzen diren premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta eraginkortasunaren printzipioetara egokituko da.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araudia arau-esparru egonkor eta koherente batean txertatuko da, eta haren edukia bat etorriko da zorroan eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen Katalogoan gai horri buruz ezarritako arauekin.

Horregatik guztiagatik, ordenantzaren legezko oinarria Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea izango dira.

Era berean, arauan eragimenaren printzipioa gauzatzen lagunduko du, zerbitzua modu eraginkorragoan erabiltzeko, ez baitago zerbitzu hori arautzen duen ordenantzarik.

3.- Onartzeko beharra eta aukera

Azkoitiko Eguneko Arreta Zerbitzua martxan jarri da 2021eko urriaren 1ean. Urte bateko esperientzia pilotua izango da, eta hilabete gutxi pasatu diren arren, zerbitzuaren lehen hilabeteetako ibilbideak azaleratu du zerbitzuaren beharra; batik bat, dagoeneko arrisku egoeran edo mendekotasun egoera arinean dauden 15 azkoitiarrei onura egiten baitie. 2022ko urritik aurrera bigarren talde bat sortzea aurreikusi da, horregatik zerbitzua arautuko duen ordenantza ezinbestekoa da. Azkenik, Udalak indarrean duen araudi planaren baitan kokatzen da Eguneko Arreta Zerbitzuaren ordenantza arautzea.

4.- Araudiaren xedea

Araudi honen xedea da Azkoitiko udalerrian adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua eskaintzen duen zerbitzurako sarbidea arautzea.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan, adineko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua honela definitzen da:

«Zerbitzu hauek pertsonen eskura jartzen dute errekurtsua, arreta premia espezifikoei lotutako intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaien egunetan». «Zerbitzu hau aldi baterako edo modu iraunkorrean erabiltzen da, eta arreta eskaintzen die mendekotasun-egoeran edo arriskuan dauden adineko pertsonen».

Eguneko Arreta Zerbitzuaren helburua da arriskuan edo mendekotasun-egoeran (I. gradua, 25 eta 39 arteko puntuazioa Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan) dauden adineko pertsona azkoitiarrei autonomia izaten laguntzea, beren ohiko bizimoduan jarraitu eta gizarteratzen laguntzea, eta, beharrezkoa bada, isolamendu-egoerak konpentsatzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5.- Egon daitezkeen irtenbide arautzaileak eta ez arautzaileak

Aukera 1: Zerbitzua ez arautzea.

Zerbitzuaren lehen urtean ez da egongo zerbitzua arautzen duen ordenantzarik; ezinbestekoa balioetsi baitzen araudia zerbitzura egokitzea eta ez alderantziz, batik bat, Azkoitiko gizarte-errealitatera egokitzea funtsezkoa baita. Zerbitzuak aurrera egin dezake araudirik gabe, baina zerbitzua handitzen den heinean, berau arautuko lukeen alderdiak beharrezkoak lirateke.

Aukera 2: Zerbitzua arautuko duen ordenantza onartzea.

Zerbitzuak lehen urte honetako hilabeteetan erakutsi du arrakasta duela adineko pertsonengan, bereziki, adineko emakumeengan. Lehen talde bat sortu da 15 pertsonarekin, eta bigarren talde bat sortzea aurreikusten da (dagoeneko itxaron zerrenda dago). Gero eta onuradun gehiago gero eta behar handiagoa dago zerbitzuaren nondik norakoak biltzen dituen araudia egiteko.

Lehenik, gizarte-errealitatearen beharretara egokitzen den zerbitzua eskaintzea baita Azkoitiko Udalaren egitekoa; bigarrenik, Eguneko Arreta Zerbitzua 2008ko Gizarte Zerbitzuei buruzko legera, eta bertako prestazioak eta zerbitzuak garatzen dituen 185/2015 dekretura egokituko litzake. Hirugarrenik, genero-azterketa egin ondoren, arrisku egoeran edo mendekotasun arinean dauden adineko emakumeei zerbitzu berri bat eskainiko litzaietxe. Laugarrenik, eta, azkenik, herritarrei erraztasunak emateko ideiarekin, aukera emango zaie Udalak zuzenean egiaztatzeko datu-bitartekaritzako plataformak baliatuta (NISAE) beste administrazio batzuetatik araudiak jasotako baldintzak, baita ere indarrean egongo den ordenantza fiskala aplikatzeko.

Azkoitian, 2022ko martxoaren 30ean.
Gizarte Ongizate Saileko arduradun teknikoa
Iñaki Lasa Palacios